

TALDEAREN AURKEZPENA

Bilboko Begoñazpi Ikastolako Batxilergo 2. mailako ikasleak gara, Naroa Hervás, Orreaga Zabaleta, Maialen Somozas, Greta Calle eta Natalia Solaun. Gure taldearen izena *Izarrak* da eta ekitaldietarako arroparen gehiegizko kontsumo ez-jasangarria identifikatu dogu gaur eguneko gizartean. Horri aurre egiteko, ekitaldietarako erropa erabilten ez daben pertsoneri erropa hori erosi eta beste batzuei alokatuko deutsegu. Horrela, erropa berezi honi beste erabilera bat emongo deutsegu eta jenteak ekitaldietarako jantziak modu jasangarrian kontsumitu ahal izango dauz. Sistema hau martxan jarteko, denda fisiko bat izango dogu Bilbon kokatuta.

